

18/11 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Juan Carlos Jauregui
M^a Teresa Ojanguren
Mikel Pagola
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko irailaren 20ko bilkurrara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du dekretu proiektu honi buruzko irizpena: **Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duena, irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratua eta C2 maila aurreratua curriculumarekin batera.**

I. AURREKARIAK

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzetarako ezarri zituen zenbait arau-alderdi aldatu dira Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa onartzearen ondorioz.

Abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuaren bidez finkatzen dira, egiazta-penaren ondoretarako, oinarrizko mailaren gutxieneko eskakizunak, eta ezartzen dira Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen duen araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen B1 (tartekoa), B2 (tartekoa), C1 (aurreratua) eta C2 (aurreratua) mailen oinarrizko curriculum eta zenbait ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen eta errege-dekretu horretako arteko baliokidetzak.

Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuak xedatzen du bai araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena, bai irakaskuntza horietako oinarrizko mailaren, tarteko mailaren, maila aurreratua eta gaitasun-mailaren curriculum.

II.- EDUKIA

Dekretu proiektu honek 11 artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat ditu. Eranskinetik maila desberdinetako curriculumak jasotzen dituzte.

1. artikulua Dekretuaren xedea aipatzen du: Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzea eta irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2

mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculuma ezartzea. Horrezaz gain, baita ere maila horiek gainditu izanaren egiaztagirien baliozkotasuna eta ondorioak ezartzea eta baliokidetzak finkatzea.

2. artikulua printzipio orokorrak ezartzen ditu. 3. artikulua mailen ordenamendua (kurtsoa), antolamendua eta izena zehazten ditu. 4. artikulua eskolan sartzeko baldintzak ezartzen ditu, eta 5.ak igotzeko eta irauteko irizpideak.

6. artikulua curriculuma definitzen du, eta ezartzen du irakasleen departamentuak egin, garatu eta emango duela argitara kurtso bakoitzari dagokion programazioa. 7. artikulua erabili beharreko metodologia zehazten du. Bestalde, 8. artikulua ebaluazioari buruzkoa da, eta esaten du zeintzuk diren erabili beharreko dokumentu ofizialak: espediente akademikoa eta kalifikazio-aktak.

9. artikuluan ezartzen dira maila desberdinetako ziurtagiriak lortzeko gainditu behar diren proba espezifikoen alderdi orokorrak. Aukera ematen du gaitasun partzialak ziurtatzeko. 10. artikulua ziurtagirien balioa eta ondorioak ezartzen ditu. 11. artikulua zentro aldatetari buruzkoa da.

Xedapen gehigarrian zehazten da irakaskuntza hauen eta 46/2009 Dekretuan araututa eta IV. eranskinean jasota dauden irakaskuntzen arteko baliokidetzak.

Xedapen Iragankorra Dekretu honetan ezarritako kurtsoekiko korrespondentzia zuzena ez duten kurtsoetatik datozen ikasleen sarbideari buruzkoa da.

Xedapen Indargabetzaileak bertan behera uzten du otsailaren 24ko 46/2009 Dekretua.

III. – BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektu honen bidez, abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuak ezarritakora egokitzen da araudia.

Funtsean aldaketa hauek egin dira otsailaren 24ko 46/2009 Dekretutik:

- Sarbideari buruzko 4. artikulutik kendu egin dira irakaskuntza arautuko hizkuntza-ikasketekiko baliokidetzak: hau da, DBHko titulua zutenek aukera zuten atzerriko lehen hizkuntza gisa ikasitako hizkuntzaren Oinarrizko mailako 2. kurtsoan matrikulatzeko, eta Batxilergoko titulua zutenak zuzenean sar zitezkeen Tarteko mailako ikasketetara.
- Gaitasun partzialak ziurtatzeko aukera sortu da.
- Tarteko mailaren eta maila aurreratuaren iraupena eta ordenamendua aldatu egin dira; hala, B2 maila, lehen maila aurreratukoa zena, orain tarteko mailan sartzen da.

Ondorioz, mailek egitura hauxe dute: tarteko mailak, lehen bi kurtso zeuzkanak (B1.1 eta B 1.2), hiru kurtso izango ditu orain; tarteko B1 maila; eta tarteko B2 maila, zeinak 2 kurtso izango baititu. C1 maila aurreratua kurtso bat izango du, eta C2 maila aurreratua 2.

Eranskinetako curriculumak Errege Dekretura egokitu dira.

Kontseiluak ez dauka eragozpenik planteatutako aldaketa egiteko, eta positiboki baloratu du arau-proiektua. Hala ere, aldaketa hauek proposatzen ditu:

Artikuluei buruzko oharrak

- Dekretu proiektu honetan jasota daude aurreko araudiak jasotzen zituen alderdi gehienak, salbu eta 11. artikuluan ezarritakoa hezkuntza-premia berezietako hezkuntza-laguntza behar duten ikasleei buruz. Ez dakigu zergatik egin den hori, **baina uste dugu beharrezkoa dela erreferentzia hori mantentzea.**
- Eranskinean ez daude jasota C2 mailari dagozkion baliokidetzak. Nahiz eta maila hori ez dagoen ezarrita oraindik gure erkidegoan, **uste dugu baliokidetzak jaso egin behar direla eranskinean.**

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2018ko irailaren 20a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: EVA BLANCO OCHOA

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA